

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### EKONOMIA GARAPENAREN ETA LURRALDE OREKAREN SAILA

**376/2016 Foru Agindua, irailaren 20koa, M<sup>a</sup> Pilar Marteles Ripa aldi baterako izendatzen duena Lezako Udaleko idazkari lanpostua 2016ko irailaren 25ean eta 26an betetzeko, Eusko Legebiltzarrerako 2016ko irailaren 25eko hauteskundeak direla-eta**

Lezako Udalak jakinarazi dio atal honi gaur egun idazkari-kontuhartzailerik gabe dagoela, eta, hortaz, norbait aldi baterako izendatu beharra dagoela lanpostu hori 2016ko irailaren 25ean eta 26an betetzeko, Eusko Legebiltzarrerako egingo diren hauteskundeak direla-eta, udaleko langileek euskal hauteskunde horien inguruan egin behar duten lana ziurtatzearen.

Hori dela eta, proposatzen du aldi baterako M<sup>a</sup> Pilar Marteles Ripa andrearen izendapena egitea egun horietarako, administrari laguntzaile lanpostua betetzen baitu udal horretan.

Bat etorritz 1732/1994 Errege Dekretuaren 33. artikuluan xedatutakoarekin (uztailaren 29koa, Gaikuntza nazionaleko toki administrazioko funtzionarioentzat gordetako lanpostuak betetzeari buruzkoa, beste errege dekretu honek emandako idazkeraren arabera: 834/2003 Errege Dekretua, ekainaren 27koa).

Kontuan hartuz Toki administrazioaren arrazionalizazio eta iraunkortasunari buruzko Legearen 25. artikuluan xedatutakoa — 27/2013 Legea, abenduaren 27koa, zeinak aldatu egiten baitu 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki araubidearen oinarriak arautzen dituena, 92.bis artikulua berria sartuz; artikulua berri horretan, toki korporazioetan langileak halabeharrez aldi baterako izendatu behar direnerako eskumen esparrua zehazten da.

1732/1994 Errege Dekretu horren bosgarren xedapen gehigarrian agindutakoa eta Arabako Foru Aldundiaren antolaketa, funtzionamendu eta lege araubideari buruzko Foru Arauak 40. artikuluan jasotako eskumenak betetzeko (52/1992 Foru Araua), haien indarrez, eta dagozkidan ahalmenak erabiliz, honako hau

#### XEDATZEN DUT:

Lehenengoa. Aldi baterako izendatzea M<sup>a</sup> Pilar Marteles Ripa andrea, Lezako Udaleko idazkari-kontuhartzailerik lanpostuari dagozkion eginkizunak bete ditzan 2016ko irailaren 25ean eta 26an, Eusko Legebiltzarrerako 2016ko irailaren 25eko hauteskundeak direla-eta.

Bigarrena. Izendapenak aurreko idatz zatian adierazi den aldirako bakarrik izango du indarra.

Hirugarrena. Foru agindu hau jakinaraztea interesa dutenei, Lezako Udalari eta Eusko Jaurlaritzako Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritzari, eta ALHAOn argitaratzeko agintzea.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko irailaren 20a

*Diputatu nagusiordea eta Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Orekaren Saileko diputatua*  
**MARÍA PILAR GARCÍA DE SALAZAR OLANO**

*Lurralde Orekaren zuzendaria*  
**IÑAKI GUILLERNA SAENZ**